



EBAZPENA, AZAROAREN 11KOA, HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIAREN 2020KO AZAROAREN 2KO EBAZPENA ALDATZEN DUENA. EBAZPEN HORREN BIDEZ, LAGUNTZAK EMATEN ZAIZKIE HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO IKASLEEN ELKARTEEI ETA UNIBERTSITATE-MAILAKOAK EZ DIREN IKASTETXEETAKO IKASLEEN GURASO-ELKARTEEI, HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKOAK IZAN EZIK.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren 2020ko azaroaren 2ko Ebazpenaren bidez, Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteentzako eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteentzako, Haur Hezkuntzako lehen ziklokoa izan ezik. laguntzak emateko deialdia ebatzi zen,

Ebazpen horretan hutsak atzeman dira, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, "Administrazio publikoek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".

Horrenbestez, eman dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. – 2020ko azaroaren 2ko Ebazpenaren I. eranskina zuzentzea, honela:

1.-

Honakoa dioenean:

G48089338	AMPA IGE Mina	014027	Arrankudiaga HLHI	Bizkaian	347,00
-----------	---------------	--------	-------------------	----------	--------

Hau esan behar du:

G48089338	AMPA IGE Mina	014127	CEIP Mina del Morro HLHI	Bizkaian	472,00
-----------	---------------	--------	--------------------------	----------	--------

2.-

Honakoa dioenean:

G20496543	APA ITTURRI txiki ITSASONDOKO Herri Eskola	012004	CEIP ALEGIAKO Herri Eskola HLHI	Gipuzkoa	611,00
-----------	--	--------	---------------------------------	----------	--------

Hau esan behar du:

G20187332	"Iturri Zahar" ikasleen Gurasoen Elkartea	012004	CEIP Alegiako Herri Eskola HLHI	Gipuzkoa	611,00
-----------	---	--------	---------------------------------	----------	--------



Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 11

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria

Lucía Torrealday Berrueco